

euskararen berripapera



196

Subijana etxea, **ahozko ondarearen habia**

Urriaren erdialdean Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen egoitza berria inauguratu zen, Villabonan dagoen Subijana etxea hain zuzen ere.



Argazki Press

Xabier Amuriza bertsotan Subijana etxearen inaugurazioan.

Ehun-fabrikaren bulegoak eta bizilekua ostatatu zituen eraikina, Villabonako Udalak erosi eta, guztiz birmoldatu ondoren, Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen esku utzitakoa, bertan, toki desberdinetan zituen zerbitzuak koka zitzen. Guztira 1.847.000 euro kostatu da etxea birmoldatu eta egokitzea. Gipuzkoako Foru Aldundiak 861.000 euro eman ditu, Eusko Jaurlaritzak 750.000 euro eta Kutxak 236.000 euro.

Azpiegitura berriak 900 metro koadro du, lau solairutan banatuta. Bertan, Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak dituen giza baliabideak nahiz ahalbide teknikoak eta dokumentalak biltzeko adina leku dago, baita bertsolaritzaz interesa duten pertsoneri eta erakundeei begira beharrezkoak diren kalitateko zerbitzuak emateko toki egokia ere. Elkarte horren eguneroko jardueren (kudeaketa, komunikazioa, ondorengotaratzeta eta ikerketa) kaltetan izan gabe, egoitza berrian elkartearen baitan dagoen atal batek (Xenpelar Dokumentazio Zentroak, hain zuzen ere) dituen idatzizko eta ikus-entzunezko funtsak gorde eta jendeak erabiltzeko moduan eskainiko ditu. Dokumentazio Zentroak, gaur egun, batetik, ahozkotasanari buruzko dokumentu-, liburu-, ikus-entzunezko, soinu- eta argazki-funtsak

katalogatzen eta digitalizatzen eta, bestetik, arlo horri buruzko gaikako datu-basea prestatzen dihardu bete-betean.

Lehenago esandakoaren kaltetan gabe, Subijana etxeak, era berean, Mintzola proiektua hartuko du bere baitan. Mintzola izeneko fundazioak sustatzen duen izen bereko proiektu horrek ahozko adierazpide garrantzitsua den bertsolaritza ikertu eta zabaltzea du xede. Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza dira, besteak beste, eratzen ari den Mintzola fundazioaren partaideak.

Zer da Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak?

Bertsozale Elkarteak 1987an sortu zen, bertsoaren bitartez jaso dugun ondareak geroa izan dezan ziurtatzeko asmoz. Gaur egun Euskal Herri osoko mila zazpiehun eta berrogeita hamar bertsolari eta bertsozale batzen ditu. Informazio gehiago www.bertsozale.com helbidean.

Ahozkotasuna eta bertsolaritza

Ahozkotasunak eta bertsolaritzak berebiziko garrantzia dute euskararen normalizazioan eta egun normalizazioak duen erronka nagusian: erabileran. Euskararen erabilera naturala eta gozagarria egitera gonbidatzen gaitu etengabe bertsolaritzak. Bertsoa, besteak beste, horixe baita: naturaltasuna, hizkuntzarekin eta hitzekin jolas eginez disfrutatu, euskara gozamenerako erabili. Hitz gutxitan esanda, egun hain beharrezkoak dituen naturaltasuna, gozamina, kultur sormena... ematen dizkio bertsolaritzak euskarari.

Bertsolaritzak tradizioa eta berrikuntza modu ezin hobean uztartzen ditu. Sasoiko, indartsu sartu da bertsolaritza XXI. mendean ●

Euskal idazle klasiko eta eragileak **Bidegileak** bildumaren sorta berrien protagonistak



Aurkezpen-ekitaldia (2008-10-29).

Oraingoan, 51 eta 52 sortak osatu, argitaratu eta aurkeztu berri ditu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Zortzi idazlek beste zortzi bidegile gehiagoren lana paratu dute. Lehenengo sortan euskal idazle klasiko hauek jorratu dira: Joanes Leizarraga, Sebastian Manuel Mendiburu, Joakin Lizarraga Elkanokoa eta Pablo Pedro Astarloa. Bigarrenean, berriz, euskara eta euskal kulturaren alde gogotik jardundako honako eragile hauek aztertu dira: Xabier Peña, Xabier Olaskoaga, Jesus Atxa eta Fernando Muniozguren.

Hona hemen, labur-labur bada ere, bakoitzaren ekarpenaren nondik norakoa:

Joanes Leizarraga (Beskoitze, 1507 – Bastida, 1601), Esther Zulaikak paratutakoa.

Apaiz protestantea. Paueko Kontzilioan Itun Berriaren itzulpena egitea eskatu zioten Leizarragari dotrina berria zabaldu ahal izateko. Euskara prosan erabili zuen aurreneko idazlea izan zen.

Sebastian Manuel Mendiburu (Oiartzun, 1708 – Bologna, 1782), Elixabete Perez Gazteluk paratutakoa.

Jesuita. Euskal Herrian entzute handiko sermolaria. Hego Euskal Herrian euskaraz prosa maisutunez landu zuen lehenengoetakoa.

Joakin Lizarraga Elkanokoa (Elkano, 1748 – 1835), Juan Apececheak paratutakoa.

Apaiza. Jaioterriko erretore izan zen (1774-1835). Hegoaldeko goi-nafarreraz idatzi zuen gai erlijiosoak hartuta. Bera hil ondoren argitaratu.

Pablo Pedro Astarloa (Durango, 1752 – Madril, 1806), Jose Mari Uriartek paratutakoa.

Apaiza. Euskararen apologista sutuenetakoa. Etimologismoaren bidez euskararen nagusitasuna frogatu nahi izan zuen. Astarloaren obra osoa gazte.

Xabier Peña Albizu (Tolosa, 1914 – 1980), Elixabete Garmendiak paratutakoa.

Bilboko gerra osteko euskalgintzan eragiletakoa. Batez ere, euskararen irakaskuntzan jardun zuen.

Xabier Olaskoaga Lasa (Errenteria, 1918 – 2006), Mikel Ugaldek paratutakoa.

Errenteriako euskararen eta euskal kulturaren aldeko edozein ekimenetan ibilitako bultzatzaile-ekintzailea.


Duela hogeitaz Eusko Jaurlaritzak sortu zuen *Bidegileak* bilduma euskalgintzan aitzindari izan diren gizon-emakumeak eta taldeak ezagutarazteko eta omentzeko. Harrez geroztik, urtez urte, biografia berriei aberastuz eta osatuz joan da bilduma. Dagoeneko kaleratutako 52 sortetan 208 bidegileren bizitza, obra eta pentsamenduari buruzko dibulgazio-lanak idatzi eta argitaratu dira bilduman.

Jesus Atxa Agirre (Aretxabaleta, 1920 – Iruñea, 2007), Imanol Murua Uriak paratutakoa.

Euskararen aldeko kultur eragilea. Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako ikastolen sorrerak eragiten ibilitakoa.

Fernando Muniozguren Urkiola (Eibar, 1950 – 2006), Iñaki Arrutik paratutakoa.

Eibarko Udaleko Euskara Zerbitzutik Euskal Herrian euskara zabaltzeko eta normalizatzeko zereginean aitzindari izan zen. Besteak beste, Eibarko ...eta kitto! euskara elkartearen, Badihardugu Deba Bailarako Euskara Elkartearen eta Euskara Elkartearen Topaguneko sorreran parte hartu zuen.



Bi argitalpen horien zabalkundeak bat egingo du bi sortetan jorratutako hiru pertsonari egingo zaien omenaldi banarekin. Honako omenaldi hauek aurreikusi dira: 1) Sebastian Mendiburu, Oiartzungo Udalak antolatuta; 2) Fernando Muniozguren, Eibarko Udalak eta ...eta kitto euskara elkarteak antolatuta; 3) Jesus Atxa, Nafarroako Ikastolen Elkarteak antolatuta. Aurreko ospakizunak kontuan, tokian tokiko zabalkundea egiteko asmoz, tirada gehigarriak egin dira.

Hizkuntza Politikarako sailburuordeak aurkezpen-ekitaldian adierazi zuenez, itxura grafikoaren aldetik zaharberrituta dagoen bi sortetako bidegileek euskalgintzaren komunitatearen aniztasuna erakusten dutela adierazi zuen. Era berean, azpimarratu zuen *Bidegileak* bildumarekin egin nahi duguna dela «izan direlako garela aitortu, hau da, gure aurrekoek egindako lana aitortu, eskertu eta ondorengo belaunaldiei horren berri ematea». Ildo horretatik, euskararekiko begirunea eta atxikimendua gogoratu zuen eta euskal aitzindariak egindako lanari eustearen garrantzia defendatu zuen. Azkenik, «euskalgintzan nornahi eta nonahi, guztiok izan gaitezke bidegile, hots, beste batzuek hasitako eta urratutako bidea da gaur egiten ari garena» baieztatu zuen.

www.euskara.euskadi.net helbidean ikus daitezke *Bidegileak* bildumako biografiak ●



Tadeo Zarratea

Guaraniera: Amerikako hizkuntza bideragarriena

Guaraniera Hego Amerikako zazpi herrialdetan hitz egiten den amerikar hizkuntza da. Paraguain, indigenak ez ezik, kreolak ere mintzaten dira guaranieraz, eta Estatuak hizkuntza koofiziala dela ezartzen du Konstituzioak. Amerikar hizkuntzen artean bideragarriena da, 12 milioi hitzun mintzo baitira guaranieraz, eta haietatik 4 milioi Paraguain bizi dira. Paraguaiko biztanleen % 86k ama hizkuntza du guaraniera, eta, gaztelaniaren antzera, lurralde osoan eta maila sozial guztietan erabiltzen da. Hala ere, Paraguain ere guaraniera garatzeko oztopo larriak daude, azken 200 urteetan independentea izan arren, kolonialismo kulturala indarrean baitago.

Tadeo Zarrateak idatzitako artikulu osoa eta *Hizkunea* Soziolinguistikako Agerkariko aurreko artikuluak eta, argitalpen eta azterlanei buruzko berriak www.euskara.euskadi.net/berripapera webgunean irakur ditzakezue.



Argitalpenak



XXI. mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak. Oinarritzko txostena

Eusko Jauraritza.
Kultura Saila



Hizkuntza-zuzenbidea. Testu bilduma euskaraz

Euskaltzaindia.
Jagon Saila



Azterlana

Euskararen erabileraren normalizazioa herri administrazioetan. III. Plangintzaldia (2003-2007). Balorazio txostena

Eusko Jauraritza.
Kultura Saila


Bertsozale Elkarteak eta HPSk lankidetzahitzarmena sinatu dute



Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak eta Eusko Jauraritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak sinatu berri duten lankidetzahitzarmenean zehaztutako lan-ildoak bideratzeko, elkarteak 274.878,59 euroko diru-ekarpena jasoko du. Diru-laguntza bi zatitan banatzen da: alde batetik, diru-ekarpen orokorra 160.110,99 eurokoa izango da, joan den urtekoarekin alderatuz % 27ko igoera suposatzen duena; bestetik, Xenpelar Dokumentazio Zentroko edukiak digitalizatzeko programarako 114.767,60 euroko diru-laguntza gehigarria emango dio Jauraritzak.

Diru-ekarpen horren bidez, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen plan estrategikoa babestu eta, aldi berean, sostengua eman nahi dio bere egitekoetan aurrera egin dezan ●

72.776 euro Mintzalaguna garatzeko



Eusko Jauraritzak eta Topagunea Euskara Elkarten Federazioak *Mintzalaguna* ekimena indartzea, hedatzea eta diruz laguntzea xede duen lankidetzahitzarmena berri dute.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 72.776 euroko diru-laguntza emango du 2008. urterako. Topaguneak, bestalde, lau lan ildo nagusi garatuko ditu: *Mintzapraktika* abiarazteko sustapen-lanak; *Mintzapraktika* programak egonkortzea; ohiko programen garapena; *Mintzalaguna* programen hobekuntza eta garapenerako urratsak.

Mintzalaguna egitasmoan parte hartzen duten pertsonen kopurua biziki hazi da hiru urtetan, egun 2.500 lagunek esku hartzen dutelarik programan. Aurtengo edizioa hamabosgarrena izango da.

Mintzalaguna egitasmoa euskara ikasten ari denari laguntza emateko sortutako ekimena da: euskara ikasleak euskaraz dakitenekin biltzen dira, ikasleak euskaraz hitz egiteko erraztasuna eta ohitura har dezaten ●



Santiago de Chile liburuak aurkeztu dute Txilen




Santiago de Chile liburuaren azala.

Txilera emigratu eta belaunaldiz belaunaldi bizimodua han egin duten euskaldunei buruzko hiru lan jaso ditu Eusko Jaurlaritzako Lehendakari-tza Sailak Urantzadi Bilduman argitaratu duen liburuak. Ainara Madariaga bakiotarrak "Imaginarios vascos desde Chile. La construcción de imaginarios vascos en Chile durante el siglo XX" lana idatzi du; Iraia Sáenz de Biteri basauriarrak "En busca de nuestra identidad. Gure nor-tasunaren atzetik" eta Carlos Fariña santiagootarrak (Txile) "La Colectividad vasca en Chile después de la Guerra Civil Española a través de la Revista 'Euzkadi' (1943-1950)". Madariagarena, EHUko "Mundu Garai-kidearen Eraikuntza" doktoregoan, bide erdian aurkeztutako tesina da. Sáenz de Biterik Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioaren Euskal ikasketen Jakinet graduondokoa bukatzeko egin zuen lan hori. Fariñare-na, Universidad Católica de Chileko Historian lizentziatura lortzeko tesia izan zen.

www.euskara.euskadi.net/berripapera webgunean irakur dezakezue Ainara Madariagari egindako elkarrizketa ●

Euskara Europako azoketan



Aurten ere, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, HABErekin elkarlanean, Europar egiten diren hizkuntza-azoketan parte hartu du. Ekimen horiekin, euskara munduan zehar ezagutzera emateaz gain, munduko beste hizkuntzen artean kokatzen da, euren esperientzien berri jasoz euskara bera ere aberasteko.

Lehen hitzordua urriaren 31tik azaroaren 2ra izan da Londresko The Language Show azokan. Bertan 130 erakusle baino gehiagorekin egin du bat euskarak. Jaurlaritza Galiziako Xuntarekin batera hurbildu da Londres. Hurrengoa Pragako Expolinguan izan da, azaroaren 7an eta 8an, eta HPSk bertako hainbat erakunderekin duen harremanari eustea izan du xede. Azken azoka, Berlingoa, azaroaren 14tik 16ra egin da. Bertan, Eusko Jaurlaritzak Galiziako Xunta izan du lagun. Euskara eta galego eskolak eman dituzte. Ukan birusa ere han izan da ●

OpenOffice.org bulegotika-paketearen ikastaroa euskaraz eskuragarri



Euskaldunontzat ez da berria dagoeneko, *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren* helburu estrategikoak betetzea jomugan, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak euskarazko Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) barruan, hainbat produktu jarri dituela erabiltzaileen eskura: sistema eragileak, bulegotika- edo ofimatika-paketeak, hiztegien pluginak, Xuxen zuzentzaile ortografikoaren bertsio guztiak, kudeaketarako softwarea, eta web-garapenerako Miatu Erraz bilaketa-liburutegia; guztiak www.euskadi.net/euskara-soft webgunean daude edonoren eskura.

Aipatu bezala, euskarara lokalizatutako bulegotika-paketeen artean, OpenOffice.org dago. HPSk etengabe eguneratzen du produktu hori, baina oraingoan, beste urrats bat eman nahi izan du, eta erabiltzaileak produktu hori hasiera-hasieratik euskaraz erabiltzera ohitu daitezzen bitartekoak jarri ditu: Avanzo enpresaren bitartez, Windows eta Linux plataformetan dabilen software libreko OpenOffice.org bulegotika-paketearen ikastaroa (Base, Calc, Impress, Writer) eskuragarri dago. Beraz, ikastaroaren inguruan informazio gehiago nahi izanez gero, Avanzoren webgunean topatuko duzu: www.avanzo.com ●

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak Euskara Sustatzeko Zuzendaritzaren kontaktu-fitxategian sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saila / Zerbitzu Zuzendaritza / Donostia kalea 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz.

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan: Eusko Jaurlaritza / Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba) Tel.: 945 01 81 16 • berripapera@ej-gv.es

